

udala



ayuntamiento

## IRAGARKIA

*Landa-bide publikoen ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA behin betiko onartzea.*

Udalbatzaren 2020ko uztailaren 29ko Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen LANDA-BIDE PUBLIKOEN ERABILERA BEREZIA arautzen duen Ordenantza, eta argitaratzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ondo onartarako.

Erabaki honen aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez daiteke EAeko Auzitegi Nagusiko **Administrazioarekiko Auzitarako Sailean bi hilabeteko epean**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Hori guztia, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.4. artikuluan ezarritakoaren arabera eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Mendaron, 2020ko abuztuaren 3an.

ALKATEA,  
Iñaki Arregui Uría.



## **LANDA BIDE PUBLIKOEN ERABILERA BEREZIA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA**

### ZIOEN AZALPENA

#### I TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea eta ezarpen eremua.
2. artikulua. Landa bide publikoen ohiko erabilera.
3. artikulua. Debekuak
4. artikulua. Landa bide publikoen erabilera berezia.
5. artikulua. Esku-hartzen duten pertsonak.

#### II. TITULUA. BAIMENAK ERREGULATZEA.

6. artikulua. Udalaren baimenaren beharra.
7. artikulua. Baimena eskatzea
8. artikulua. Eskaera ebaztea
9. artikulua. Baimenaren epea

#### III. TITULUA. LANDA BIDE PUBLIKOEN ERABILERA BEREZIA EGITEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua. Eskubideak
11. artikulua. Betebeharrak
12. artikulua. Bidearen ohiko erabilera bermatzea.
13. artikulua. Harrobiak, meatzaritzako jarduerak, lur-mugitzea eta beste batzuk
14. artikulua. Obra edo instalazio baimendu gabeak

#### IV. TITULUA. FIDANTZA JARTZEA ETA ITZULTZEA

15. artikulua. Bideetan eragindako kalteen konponketak bermatzeko fidantza.
16. artikulua. Jarritako fidantza itzultzea eta eragindako kalteengatiko erantzukizuna.

udala



ayuntamiento

## V. TITULUA. TASA ORDAINTZEA

17. artikulua. Tasa ordaintzea

## VI. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

18. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

19. artikulua. Zigorrak.

20. artikulua. Zigorren mailaketa

21. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak

## VII. KAPITULUA. XEDAPEN GEHIGARRIA



## ZIOEN AZALPENA

Mendaroko Udala ahalegin berezia egin ari da, udalerriko landa bide publikoak zolatzeko, landa guneeetako bizilagunen hobe beharrez, eta hainbat arrazoi tarteko, bide horiek erabili behar dituzten beste pertsona batzuen hobe beharrez.

Bide horiek, erabilera baldintza egokietan mantentzeko, beharrezkoa da, nola edo hala, erabilera hori arautzea. Egia da bide horien erabilera intentsiboak eta neurrigabeak kalteak eragiten dituela bideen zoruari, eta kalte horiek bidearen ohiko erabilerari eragiten diotela.

Nagusiki, egurra ateratzeko lanak dira bideen erabilera intentsiboa eragiten dutenak; izan ere, lan hauek egiteko egin behar den bidaia kopurua eta atera behar diren material tonak handiak dira, eta gainera, ibilgailu eskergak erabili behar dira lan horiek egiteko. Kontuan izan behar da, gainera, gaur egun, "insignis" pinua jasaten ari den izurritearen ondorioz, azkenaldian, ugaritu egin direla pinudien erabateko inausketak, eta hori, hurrengo urteetako joera izango dela.

Beharrezkoa da, beraz, landa bide publikoen erabilera berezi hau arautzea, arestian aipatutako lanak egiteko orduan, garraiolariak beharrezkoa den arduraz joka dezaten, eta ondorioz, bideei egindako kalteak ahalik eta txikiak izan daitezken. Horretaz gain, beharrezkoa da egurra garraiatzen dutenentzat hainbat betebeharrak ezartzea, lan horiek egiten dituzten bitartean, bidea garbi izan dezaten, beste erabiltzaile batzuek egin behar duten ohiko erabilera oztopa ez dezaten, eta halaber, bertako bizilagunak haien etxetara bide horietatik joan ahal izan daitezken.

Ordenantzak definituko du zein den bideen ohiko erabilera, eta zein den erabilera berezia. Horretaz gain, bideen erabilera berezia egiteko baimenaren araubidea ere arautuko du. Baimena eskuratzeko, bestalderik, fidantza bat jarri beharko da, egurra ateratzeko lanak egiten diren bitartean eragindako kalteak konponduko direla bermatzeko.

Azkenik, ordenantza hori betetzeko, arau-hausteen araubidea ezarriko da, baita horiei dagozkien zigorrak ere.

## I TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua.- Xedea eta ezarpen eremua.

Ordenantza honen xedea da udal titularitatekoak diren eta zolatuta edo zolatu gabe dauden bideen erabilera, mantentze-lanak eta zaintza arautuko duten xedapenak ezartzea. Hori guztiori, ibilgailu astunen joan-etorriek bide horiek honda ez ditzaten.

Udalari dagokion lizentzia eskatu beharko zaio, udal titulartasuneko bideak erabili behar direnean, ondoko kasuetan:

- Egurra ateratzea
- Harrobiko materiala ateratzea
- Lurra lekualdatzea partzelen betelanak eta egokitze-lanak egiteko, Mendaroko HAPOak zehazten duenaren arabera
- Obra zibilak



## **2. artikulua. Landa bide publikoen ohiko erabilera.**

Ohiko erabilera izango da gehienez ere baimenduta dagoen 20 tona baino gutxiagoko gehienezko pisu gordina duten ibilgailuek egiten dutena.

Kamioien gehienezko abiadura 30 km-koa izango da orduko.

## **3. artikulua. Debekuak**

Nolanahi ere, debekatuta egongo da landa bide publikoetan honako ibilgailu hauekin ibiltzea.

- Beldar-ibilgailuak eta katedunak.
- Ibilgailu katedunak.
- Errodamendu ardatz bakoitzean, 10 tonatik gorako gehienezko pisu gordina duten ibilgailuak.
- Ibilgailu autokargatzaileak eta arrastatzaileak.
- Zoru gaineko arraste-ibilgailuak, baita edozein motako materiala arrastatzea ere.
- 26 Tm baino gehiagoko gehienezko pisu gordina duten ibilgailuak.
- 3 ardatzetik gorako kamioiak (trailerrak).
- Atoidun kamioiak.

Dena den, espezifikoki eta puntualki, behar-beharrezkoa denean aurretik aipatutako ibilgailuren bat erabiltzea, baimen bat eman ahal izango da horretarako propio, eta beharrezko neurriak hartuko dira bide-zorua ez hausteko.

## **4. artikulua. Landa bide publikoen erabilera berezia.**

Landa bide publikoen erabilera berezizat hartuko da, bide horietan, gehienez ere baimenduta dagoen 20 tona baino gehiagoko gehienezko pisu gordina duten ibilgailuekin ibiltzea.

Dena dela, joan-etorri horiek nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiarekin zerikusi zuzena dutenean (bazka, pentsua eta abar garraiatzea), erabilera hori ez da berezizat hartuko.

Nolanahi ere, erabilera berezizat hartuko da lehenengo paragrafoan aipatzen diren ibilgailuekin landa bide publikoetan zirkulatzea, baldin eta baserrietan edo nekazaritza eta abeltzaintza ustiategietan obrak edo betelanak eta basolanak egin behar badira.

## **5. artikulua. Esku-hartzen duten pertsonak.**

Zuhaiztiaren jabea: zuhaitz masaren jabea izango da. Gehienetan, zuhaitziaren jabea eta pinudia landatuta dagoen lursailaren pertsona bera izango dira.

Garraiolaria: Ibilgailuak jartzen dituena izango da, eta egurra ateratzeko lanak egiten dituena edo betelana egiteko materiala eramaten duena.



## II. TITULUA. BAIMENAK ERREGULATZEA.

### 6. artikulua. Udalaren baimenaren beharra.

Zolatutako landa bide publikoen erabilera berezia egiteko, interesdunek, aldez aurretik, beharrezkoa den udal baimena izan beharko dute, Ordenantza honetan ezarrita dagoenaren arabera. Gerta litezkeen kalteen erantzule nagusia izango da, edozein kasutan, baimena eskatzen duen pertsona.

### 7. artikulua. Baimena eskatzea

Adierazitako baimena garraiolariak, zuhaitzien jabeek edo bidearen erabilera berezia egin behar duten erabiltzaileek eskatu beharko dute; eta horretarako, honako inguruabar hauek adieraziko dituzte.

- a) Zuhaitziaren jabea identifikatzen duten datuak.
- b) Garraiolaria identifikatzen duten datuak.
- c) Garraiorako erabiliko diren ibilgailuei buruzko datuak (marka eta modelo, ardatz kopurua eta baimendutako gehieneko pisua). Matrikula ere zehaztuko da.
- d) Garraiatuko den material mota.
- e) Garraioa hasi eta bukatuko deneko gutxi gorabeherako data.
- f) Materiala pilatu behar bada, lekua grafikoki adieraziko da.
- g) Ibilgailuak zein menditatik edo lekutatik datozen adierazi beharko da. Katastroko erreferentzia ere zehaztu beharko da.
- h) Erabili nahi diren bide publikoen espezifikazioak, hala badagokio, Udalak emango dion kokapen-planoan ibilbidea zehaztuta.
- i) Egurra atera behar baldin bada, egurra mozteko baimena, basogintza arloan eskumena duen agintaritzak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzua) emandakoa, Udaleko erregistroan egon beharko da, eta ez da beharrezkoa izango hura aurkeztea. Aterako diren zuhaitz hektareak GFaren baimenean datozenekin bat etorriko dira.

### 8. artikulua. Eskaera ebaztea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa formaz aurkeztu ostean, eta beharrezkoak diren txostenak egin ondoren, Alkatezak edo honek eskuordetutako pertsonak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu, eta gehienez ere, hilabeteko epean.

Ebazpenaren aurretik, udal zerbitzu teknikoek ikuskaritza-bisita bat egingo dute, eta txosten bat egingo dute udalarenak diren bideen egoerari buruz, erabiliak izan aurretik. Aipatutako txostenek oinarritzat har ditzakete material hauek: argazki bidezko dokumentazioa, dokumentazio planimetrikoa, ikus-entzunezkoa eta abar.

Baimenean jarriko diren baldintzak ezinbestean betetzekoak izango dira.



Baimena hirugarrengoei kalterik egin gabe emango da, eta baimena eman arren, derrigorrezkoa den beste edozein baimen ere eskuratu beharko da.

### **9. artikulua. Baimenaren epea**

Udal lizentziak GFaren baimenean zehazten den indarraldi berbera izango du (urtebete).

Epe hori igarota, hala badagokio, baimenaren luzapena eskatu beharko da. Eskatutako luzapena dagozkion tasak ordaintzetik salbuetsita geratuko da. Luzapenak urtebeteko indarraldia izango du, eta luzapen bakarra eskatu ahal izango da.

## **III. TITULUA. LANDA BIDE PUBLIKOEN ERABILERA BEREZIA EGITEN DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **10. artikulua. Eskubideak**

Ordenantza honen esparruan eman den udal baimenaren titularrek edo garraioaren titularrek (bi pertsona horiek desberdinak diren kasuan) honako eskubide hauek izango dituzte:

- a.- Udal bideetan barrena, baimenean zehaztutako materialak garraiatzea, baimenean adierazten diren baldintzen eta kopuruen arabera.
- b.- Udal agintarien eta Ertzaintzaren Landa-taldearen babesa lortzea, baimendutako jarduera egin ahal izateko.

### **11. artikulua. Betebeharrak**

Ordenantza honen esparruan eman den udal baimenaren titularrek, baita garraioaren titularrek ere (bi pertsona horiek desberdinak diren kasuan), honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

- a.- Ibilbide guztian zehar, bideen ohiko erabilera publikoa bermatu beharko da; eta horretarako, erabiltzailearen kontura eta haren baliabideak erabilita, beharrezkoak diren garbiketa guztiak egingo dira bide horiek, une oro, garbitasun baldintza egokietan egon eta ibiltzeko modukoak izan daitezten.
- b.- Zirkulazioa ez oztopatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea. Hala, bidea eta arekak ezin izango dira ez enborrekin, ez zuhaitz adarrekin okupatu; ezta betelanak egiteko erabiliko diren materialekin edo antzekoekin ere.
- c.- Ibilgailuek herri bidera botatzen dituzten gauza guztiak kentzea, hala nola, harriak, adarrak, e.a.
- d.- Bideetan barrena dabiltzan ibilgailuek ez dute gai kutsatzailerik isuriko, hala nola, gasolioa, olio, lubrifikatzaileak, e.a. Jarioren bat baldin bada, udal agintaritzari emango zaio horren berri.
- e.- Bidean zehar dauden azaleko uretarako drainatzeak errespetatuko dira, bidean erosio jarraiturik egon ez dadin.
- f.- Pistak zeharkatzen dituzten hodi guztien sarrerak garbi utzi beharko dira.



g.- Ezin izango da bidean dagoen elementu funtzional bat ere hondatu edo elementu horren ezaugarriak edo kokalekua aldatu, baldin eta, elementu hori zuzenean loturik badago zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin eta segurtasunarekin.

h.- Egurra atera behar baldin bada, garraiolariak arrisku seinaleak jarri beharko ditu landa bidean, gainerako erabiltzaileei lanak egiten ari direla ohartarazteko.

i.- Fidantza jartzea, sortutako kalteak konponduko direla bermatzeko. Hala, ezin izango zaio erabilera bereziari ekin, fidantza jarri arte. Pertsona interesatuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena izanik, ez badu eskatzen dagokion udal lizentzia, Udalak fidantza ofizios kobratu ahal izango dio; dena den, dagokion lizentzia eskatu beharko dute.

j.- Ez da hondakinik utziko bide-bazterrean (plastikozko poltsak, arraste-kableak, gasolina-latak eta antzekoak)

k.- Hondatutako bide-zorua konpontzerakoan ez da aldaraziko inguruan den lurzoru erabili gabea, eta materia bizigabea gehituko da sendotze-lanen bat egin behar izanez gero.

l.- Errekaren bat gurutzatu behar izanez gero, arlo horretan eskumena duen agintaritzari eskatu beharko zaio baimena.

m.- Kontratista edo garraiatzailea behartuta dago, lanek dirauten aldian, lizentzia baduela eta fidantza utzita edota tasak ordainduta dituela ziurtatzen duten jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztera. Dokumentazio hori aipatutako lanak egiteko erabiltzen duen ibilgailuan eduki behar du eskuragarri.

## **12. artikulua. Bidearen ohiko erabilera bermatzea.**

Aprobetxamenduaren onuradunek, nolnahi ere, landa bide publikoaren ohiko erabilera eta erabilera publikoa bermatu beharko dituzte, eta horretarako, beharrezkoak diren konponketa eta garbiketa guztiak egin beharko dituzte, aprobetxamenduak dirauen bitartean.

Nolanahi ere, erabiltzaileek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte zirkulazioa ez oztopatzeko. Bidea ez da enborrekin okupatuko, ezta zuhaitzen adarrekin ere; eta ibilgailuek herri bidera jaurtitzen dituzten gauzak kendu beharko dituzte, hala nola, lurra, harriak, e.a.

## **13. artikulua. Harrobiak, meatzaritzako jarduerak, lur-mugitzea eta beste batzuk**

Bide horiek erabiltzeko, harrobietatik, meatzeetatik, lur-mugitzetik materialak ateratzeko lanetarako eta ibilgailu motordun astunak edo antzekoak erabiliz materialak lekualdatzea berekin dakarren beste edozein lanerako, ibilbide osoan egin beharko dute mantentze-lana jarduera horien titular diren enpresek. Gainera, dagokion tramitazioa egingo da dagokion udal baimena lortzeko. Aldian-aldean, udal zerbitzu teknikoek ikuskatuko dituzte bide horiek, eta behatzen dituzten kalteak aipatutako enpresek konpondu beharko dituzte.

## **14. artikulua. Obra edo instalazio baimendu gabeak**





Udal titulartasuneko bideetan, Udalak obrak geraraztea erabakiko du lizentzian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, baita baimendu gabeko itxiturak edo antzekoak kentzea ere, bidearen erabilera publikoa eragozten badute.

#### IV. TITULUA. FIDANTZA JARTZEA ETA ITZULTZEA

##### **15. artikulua. Bideetan eragindako kalteen konponketak bermatzeko fidantza.**

Garraiolariak fidantza jarri beharko du, eta fidantzaren zenbatekoa landa bide publikoaren erabilera berezia egiteko emango den baimenean bertan zehaztuko da.

Fidantzaren zenbatekoa finkatuko da egin beharreko distantziaren eta aprobetxatutako mendi hektareen arabera. Horrela zehaztuko da:

<250 m,	400€/Ha
250-500 m,	500€/Ha
500-1000 m,	600 €/Ha
1000-2000 m,	650 €/Ha
2000-3000 m,	700 €/Ha
3000-4000 m,	750 €/Ha
>4000 m,	800€/Ha

Dena den, edonola ere, lizentzia bakoitzeko fidantza minimoa 1500 eurokoa izango da. Gehienez ere, fidantza 3500 eurokoa izango da.

Bermea eskudirutan, bankuko abal edo aseguru-poliza bidez jarri ahal izango da, eta bideak erabiltzen diren bitartean sorten diren kalteengatik erantzuteko baliatuko da.

Ezin izango zaio bideen erabilera bereziari ekin, beharrezkoa den fidantza jarri arte.

Ordenantza honetan ezarritakoa hautsiz udal titulartasuneko bide batetik ibiltzen hasten dena, Udalari dagokion baimena eskatu gabe eta fidantza aurkeztu gabe, arau-hauste arin bat egiten ari da, ordenantza honetako 18. artikuluan tipifikatua, a) atalean.

Inoiz ez du balio izango menditik zura ateratzeko, edo lan edo ekintza jakin baterako fidantzak beste mendi batetik zura ateratzeko, edo beste lan edo ekintza jakin baterako fidantza gisa, aprobetxamendu horiek aldi berean egiten badira ere.

Bakanketak egin behar direnean, fidantza jartzetik salbuetsiko da.

##### **16. artikulua. Jarritako fidantza itzultzea eta eragindako kalteengatik erantzukizuna.**

Bidearen erabilera berezia bukatu ostean, interesdunak jarritako fidantza itzultzeko eskaera egingo du. Horretarako, idatzi bat bidaliko dio Alkateari, non zehaztuko duen arestiko erabilera bukatu dela. Hala badagokio, sortutako kalteak ere zehaztu beharko ditu.

Behin adierazpen hori jasota, udal teknikariek bisita bat egingo dute bidea zein egoeratan gelditu den jakiteko. Hala, bideak kalterik izan ez badu, aipatutako fidantza itzuliko da, gehienez ere, hilabeteko epean.



Txosten teknikoak zehazten baldin badu bidean kalteak izan direla, horren berri emango zaio fidantza jarri duenari; eta honek, gehienez ere, 15 eguneko epean, egoki irizten diona alegatuko du. Hori egin ostean, Udalak ebazpena emango du fidantza itzultzeko edo pertsona titularrari beharrezkoak diren konponketak egiteko beharrezkoa den baimena eskatzeko errekerimendua egiteko.

Konponketak egiteko errekerimendua egin, eta konponketa horiek exekutatu gabe, beste hilabete bat igarotzen bada, Udalak obra horiek subsidiarioki exekutatuko ditu fidantza jarri duenaren kontura.

Jarritako fidantzak sortutako kalteak konpontzeko gastu guztiak estaltzen ez baldin baditu, Udalak eratorritako erantzukizuna eskatuko du, eta beharrezkoak diren legezko neurriak hartuko ditu. Hala, solidarioki, honako hauek izango dira erantzuleak: baimenaren titularra, eta pertsona desberdinak baldin badira, garraioaren arduraduna ere bai.

Egindako kalteak konpondu ezingo balira, Udalari indemnizazio bat eman beharko zaio, suntsitutako ondasunen balioaren berdina den zenbatekoarekin edo eragindako kaltearen kopuruarekin.

Bat baino gehiago badira aldi berean udalaren bide berak erabiltzen dituztenak, eta kalteak gertatuz gero, erantzukizunen banaketa proportzionala egingo da erabiltzaile desberdinen artean, ibilitako metro linealen eta garraiatutako tonen edo metro kubikoen arabera. Baldin eta haietako batek eragindakoak izan direla ziurtatzen ez bada.

Segurtasunagatik, edo dagokion udal organoak ebatzita behar bezala frogatutako beste edozein arrazoiengatik, kalte-galeren ordaina geroraezina denean, kalte-galera horiek berehala ordeztuari ekin ahal izango zaio, baita gero ere kalte-galerearen eragileari dagokion ordainketa exijitzeari, aurreko artikuluetan adierazitako zigor-espeditzeari aurrez hasiera eman ondoren, edo jurisdikzio arruntera joz.

Udalaren eta fidantza jarri duenaren artean desadostasunik sortuz gero kalteen edo kalte-ordainaren balorazioari buruz, aldeak, aurrez propio adostuta, bitartekaritza-, kontziliazio- eta arbitraje-prozeduren pean geratu ahal izango dira. Dena den, prozedura horiek ondorengo akordioa, ituna, hitzarmena edo kontratua eskatuko dute aldean artean. Kasu horretan, prozedura horien ondorioz sortutako gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

## V. TITULUA. TASA ORDAINTZEA

### 17. artikulua. Tasa ordaintzea

Zolatutako bideen erabilera berezia egiteko, tasa ordaindu beharko da, dagokion Ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

Bakanketak egiten direnean, %50eko hobaria aplikatu da dagokion tasarekiko.

Pertsona interesatuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena izanik, ez badu eskatzen dagokion udal lizentzia, Udalak tasak ofizioz kobratu ahal izango dio; hala eta guztiz ere, dagokion lizentzia eskatu beharko dute.

Tasak ordaindu ez izanak automatikoki ekarriko du berekin lizentzia berritzea.

## VI. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK



### 18. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a) Landa bide publikoen erabilera berezia egitea, udalaren baimena, beharrezkoa dena, izan gabe; edo bestela, dagokion fidantza jarri gabe, baldin eta erabilera gerora legeztatzeko modukoa bada.
- b) Aprobetxamenduak dirauen bitartean bidea garbi eta era egokian ez edukitzea, eta horrela, bide hori erabiltzen duten beste erabiltzaile batzuen ohiko erabilera oztopatzea.
- c) Ordenantza honen 11. Artikuluan zehaztutako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta horrek inolako ondorioz ez badu, edo ondorio arinen bat badu ingurumenean.
- d) Baimenean finkatutako baldintzak ez betetzea.
- e) Obrak, instalazioak edo itxiturak egitea eskatutako baimenik edo lizentziarik gabe, ondoren legeztatu daitezkeenean.

Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) Ibilgailu motordun astunek bideetatik eta landa- eta baso-pistetatik zirkulatzea dagokion baimenik eraman gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetakoren bat ez betetzea, ondoren legeztatu ezin daitezkeenean.
- b) Bidea ibilgailuen edo pertsonen joan-etorriarentzat arriskutsua den baldintzetan edukitzea.
- c) Ordenantza honen 11. Artikuluan zehaztutako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta horrek ingurumenean ondorio larriren bat sortzen badu.
- d) Bidean dagoen edozein elementu funtzional nahita hondatzea edo elementu horren ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea, baldin eta elementu hori zuzenean loturik badago zirkulazioaren antolamenduarekin, orientazioarekin eta segurtasunarekin.
- e) Bideko edozein obra edo instalazio, edo bertan dagoen egiturazko edozein elementu, nahita suntsitzea, kaltetzea, hondatzea edo aldatzea.
- f) Baimendutako mugak gainditzen dituen pisuarekin edo kargarekin ibiltzeagatik bidea arinki kaltetzea edo hondatzea.
- g) Obrak, instalazioak edo itxiturak egitea eskatutako baimenik edo lizentziarik gabe, ondoren legeztatu ezin daitezkeenean.

Honako hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a) Ordenantza honen 11. Artikuluan zehaztutako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta horrek ingurumenean oso larria den ondorioren bat sortzen badu.
- b) Baimendutako mugak gainditzen dituen pisuarekin edo kargarekin ibiltzeagatik, bidea larriki kaltetzea edo hondatzea.

**19. artikulua. Zigorrak.**

- 1.- Arau-hauste arinei 150 eurotik 500 eurora arteko isuna jarriko zaie.
- 2.- Arau-hauste larriei 501 eurotik 1.500 eurora arteko isuna jarriko zaie.
- 3.- Arau hauste oso larriei 1.501 eurotik 3.000 eurora arteko isuna jarriko zaie.

**20. artikulua. Zigorren mailaketa**

Zigorrak jartzerako orduan, arau-haustea eragin duen gertakariak duen larritasunaren eta jarritako zigorraren arteko egokitasuna zaindu beharko da, eta bereziki, sortutako kalteen eragina izango da kontuan.

**21. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.**

Arau-hausteen erantzuleak izango dira baimenaren titularra eta garraiolaria, baldin eta bi pertsona horiek desberdinak badira.

Bidearen erabilera berezia baimenik gabe egiten baldin bada, zuhaitziaren jabea nahiz egurra garraiatzen duena izango dira erantzuleak.

**VII. KAPITULUA. XEDAPEN GEHIGARRIA.****Ordenantza indarrean sartzea**

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da aldatu edo indargabetu arte.